



ELHUYAR  
aholkularitza

## Igorren merkataritzan euskaraz?

# Beinke!

Elhuyar Aholkularitza  
[www.elhuyaraholkularitza.net](http://www.elhuyaraholkularitza.net)

Olatz Estensoro Garcia

[olatze@elhuyar.com](mailto:olatze@elhuyar.com)

### Sarrera

Elhuyar Aholkularitza Elhuyar Fundazioaren barruko enpresa da. Aholkularitza orokorra emateaz gain, bereziki euskara sustatzeko plangintzen gaineko aholkuak ematen ditugu, enpresetan edo bestelako erakundeetan, publiko nahiz pribatuetan. Euskararen normalizazioarekin erlazionatutako 33 proiektu kudeatzen ari gara gaur egun.

2000. urtetik ari gara Elhuyar Aholkularitzan udalerrietako euskararen plan estrategikoak diseinatu eta garatzeko aholkularitzan. Proiektu horiek udalerrietan euskararen normalizazioan aurrera egiteko epe ertaineko prozesuak dira, herritarren ekimenean oinarrituta.

Prozesuak herrien ezaugarri eta beharretara egokitzen dira, eta, horregatik, zenbaitetan orokorrak izan daitezke, udalerri osoa kontuan hartzen dutenak —Berriz, Lezo eta hemen aztertuko dugun Igorreko esperientziak, adibidez— edota sektorekakoak, esparru bat edo beste kontuan hartzen dituztenak, esaterako, EBPN garatzen ari diren hainbat udalerrietan: gazte-elkarteetan euskararen egoera aztertu eta jarduera-plana diseinatzen, haur eta gazteen eskola-ordu eta eskola-orduz kanpoko jardueren inguruan, etab.

Udalerrietan era batera edo bestera euskararen erabilera suspertu nahi duten udalei zuzendutako proiektuak dira, beraz, bai EBPN abiatu duten udalentsat, berdin “Bai Euskarari Akordioa Herrietan (BEAH)” ekimenaren barruan edo baita beraien kasa ari direnentzat ere.

### Igorreko Euskararen Plan Estrategikoa

Igorre Bizkaiko udalerria da, Arratia eskualdean kokatua, oso euskalduna. 2001. urteko datuen arabera, 3.857 biztanle ditu erroldatuta eta horietatik, % 87 dira euskaldunak edo ia euskaldunak.

Azken urteetan kezka handia sortu da udalerriko euskararen inguruan, hezkuntza-munduan lan egiten dutenen artean batez ere. SEI elkarteak 2001. urtean egindako euskararen erabileraren kale-neurketak erakutsi zuen kezka horrek bazuela arrazoia. Datu horien arabera, igorretarren artean euskararen erabilera %32,9 zen, eta ehuneko baxu hori baino esanguratsuagoak ziren beste hainbat datu edo ondorio ere kaleratu ziren: adibidez, umeen artean euskararen erabilera gazteen artekoa baino baxuagoa zela.

Arazoaz ohartuta, Udalak euskararen erabilera sustatzeko ekimena jarri zuen martxan 2002. urteko martxoan, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin. 3-5 urteko epean euskararen egoera normalizatzeko zer egin aztertu nahi zen. Urte horietan egin beharrekoa estrategikoki planifikatzea zen xedea eta horrela, beharko liritekeen baliabideak ere zehaztea, betiere herritarren parte-hartze aktiboarekin.



## DISEINUA

2002ko martxotik abendura diseinatu zen Igorreko Euskararen Plan Estrategikoa. Fase horretan herritarrek beraiek erabaki zuten euskararen erabilera udalerrian sustatzeko ahalegina non, noiz eta nola egin behar zen erabaki zutenak, baliabidek non eta nola erabili, etab. Proposamenak egiteko prozesu horretan, norberaren jarrerak aztertu zituzten eta euskara eremu eta sektore guztietan gehiago erabiltzeko zer egin zitekeen adierazi zuten. Eskerak norbere buruari, zerbitzuei eta Udalari egin zizkioten, planteamendu integral bati erantzunez.

Horrelako prozesua bideratzeko egitura zabala behar izan zen: adibidez, plana kudeatzeko eta koordinatzeko bertako euskara-teknikari bat (koordinatzailea) aritu zen.

Herritarrekin egin ziren batzarrak Elhuyar Aholkularitzak trebatutako herritarrek eta koordinatzaileak berak dinamizatu zituzten. Dinamizatzaile-lanetan hamazazpi arratiar aritu ziren.

Herritarren lan-taldeak osatzerakoan, Planean sei sektore jo ziren estrategikotzat: hezkuntza, merkataritza/ostalaritza eta zerbitzuak, elkarrekin, lan-mundua, zerbitzu publikoak eta iritzi publikoa (herritarrek oro har). Horrela, sei sektoreetako 14 lan-talde osatu ziren eta guztiak aritu ziren lanean diseinu-faseko 3 bileretan:

- Sektorearen euskararen egoeraren azterketa edo diagnostikoa egiteko
- Helburuak eta ekintzak proposatzeko
- eta planaren garapenari buruz hausnartzeko.

Prozesuan parte-hartzea eragiteko hainbat teknika eta dinamika erabili ziren. Prozesuan pertsonak izan ziren ardatz nagusia, egin beharreko lanaren abiapuntua eta oinarria taldean bertan kokatu genuen, ez aurretik guk zehaztutako hipotesi edo aurrelanetan.

Guztira 240 igorreztarrek hartu zuten parte prozesuan, eta horietatik 20 pertsona aritu ziren merkataritza/ostalaritza eta zerbitzuak arloko lan-taldean.

Talde horiez gain, Udaleko ordezkari politikoei, koordinatzaileak eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariek osatutako jarraipen-batzordea ere aritu zen lanean. Batzorde hori zen prozesuari segimendua egin ziona.

Prozesu guztian garrantzi berezia eman zitzaion komunikazioari eta diseinu-fasearekin batera komunikazio-plana ere diseinatu eta garatu zen. Besteak beste, hauek egin ziren: logoa eta leloa ("*Igorren euskerea zuzterretik*"), aurkezpenak, prentsaurrekoak, artikuluak, herritarren argazkiekin kartelak, etab.



## GARAPENA

2003ko martxotik ari gara diseinatutakoa garatzen, Plan Estrategikoak jasotzen dituen 4 urteetako jarduera-planak garatzen.

Plan horiek aplikatzeko egitura berregokitu egin zen, koordinatzaileak eta jarraipen-batzordeak lanean jarraitu dute, baina bi bilgune berri ere sortu ziren: batzorde eragilea eta merkataritza/ostalaritza eta zerbitzuen lan-taldea.

Batzorde eragilea honako hauek osatzen dute: koordinatzaileak, diseinuko lan-taldeetako ordezkariak, dinamizatzaileak eta herriko euskalgintzak. Batzorde horrek eginkizun nagusia plana bultzatzea da eta horren barruan:

- ◆ Herriari begirako ekintzak bideratzea
- ◆ Komunikazio-ekintzak proposatu eta gauzatzea
- ◆ eta Planaren martxari segimendua egitea.

Bereziki azpimarratu beharra dago, batzordeak berak autogestionatzen dituela diru-baliabideak, betiere, ordea, urteko aurrekontua eta jarduera-plana aintzat hartuta.

2004an bideratu dituzten ekimenak:

- *“Igorren bai? BAI!”* herritarren konpromiso-kanpaina (489 sinatzaileekin).
- INBIU jaiak.
- Arratiera sustatzeko ekintzak (*“Gure berbategie”* proiektuarekin batera).
- *“Egizu, erraza da ta (ia etxetik urten barik...)”* kanpaina: euskara erabiltzeko aukeren kanpaina.
- Euskarazko produktuen berri emateko kanpaina, etab.

Planaren barruan egitura finkoa ez izan arren, hezkuntza-sektorean planifikatutako hainbat neurri bideratu dira, eskolako HNP batzordeekin batera eta eurekin koordinatuz. 2004an egindakoak:

- Helduei begirako ekintzak/transmisio-ekintzak (talogintza eta joko zaharrak).
- Gazteentzat eguerdiko tailerrak.
- Euskara ikasteko ikastaroa guraso erdaldunentzat.



ELHUYAR  
aholkularitza

“Beinke!” taldea.

Merkataritza/ostalaritza eta zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen



### LAN-TALDEA

Garapeneko talde edo batzordeak sortzeko beste deialdi bat egin zen. Horrela, Igorreko merkatari/ostalari guztiei egin zitzaien deialdia, diseinu-fasean parte hartu edo ez, garapeneko lan-taldean parte hartzeko.

Gaur egun 14 merkatari/ostalarik osatzen dute “Beinke!” taldea. Batez beste 9 pertsona etortzen dira hamabostean behin egiten dituzten batzarretara. Astelehenetan izaten dira, euren lan-ordutegira egokitutako garaian, gaueko 8:15ean. Planaren koordinatzaileak dinamizatzen ditu batzarrak.

Garapen-faseko lehen lana taldea bera egitea izan zen, lan-dinamika lortzea. Hori lortuta, euren buruari jarritako lan-plana, urteko kudeaketa-plana garatzen dihardute bi urte hauetan.

Planean jasotako ekimenen gaineko ardura taldekideena da eta horren barruan egiten dituzte: egutegia zehaztu eta ekintzen gaineko erabakiak hartu, urratsen definizioa, komunikazio-lana, segimendua eta ebaluazioa.

Horrez gain, planaren ekimen orokorretan (Batzorde Eragiletik bideratutakoetan) parte-hartze aktiboa izaten dute eta taldekide batek batzordeko batzarretan hartzen du parte.



ELHUYAR  
aholkularitza

## EKIMENAK

Plana garatzen dihardugun 2 urte hauetan hainbat ekimen jarri ditu martxan Beinke! taldeak:



⇒ “*Nik saldu, zuk erosi biok euskeraz*” kanpaina. Kanpaina diseinatzeko, euskararen erabileraren inguruko diagnostiko zehatza egin zen herriko establezimendu guztietan eta horretan oinarrituta konpromiso-kanpaina jarri zen martxan erabilera bultzatzeko. Horren trukean opariak banatu ziren denda eta tabernetan. Kanpaina amaituta, segimendurako ildoak zehaztu eta ebaluazioa egin zen, herrian eta sektorean izan zuen inpaktua aztertzeko.

- ⇒ Bezeroek denda edo tabernetan euskaraz egitera bultzatzeko ekimena jarri zen abian 2004an; horrela, hurreratzen zirenei euskara egiten laguntzeko, ohiko esaldiekin kartelak egin ziren, arratieraz. Hainbat aldiz banatu zen eta ebaluazioa ere egin da.
- ⇒ Batzorde eragiletik bultzatutako ekimenarekin batera, banku eta kutxetako balia bideak (kutxazaina...) euskaraz erabiltzeko kanpaina.
- ⇒ Taldearen berri emateko eta orokorrean establezimenduetan euskararen erabilera handitzeko etengabeko lana egin da komunikazioan: kamisetak, buzoiak, etab.
- ⇒ Herri-mailako ekimenetan talde bezala hartu du parte: INBIU jaietan (ekintzak antolatuz) eta Gabonetako jaietan.

Gaur egun euskara-eskola bereziak jasotzen ari dira, euren eguneroko lanean euskaraz jarduteko trebakuntza. Ikastaroaren diseinurako konpromiso-kanpainatik ateratako ondorioak hartu dira kontuan. Herriko sektorekideei ere luzatu zieten deialdia, eta gaur egun astean bi orduz jasotzen dituzte eskolak Igorreko AEKren eskutik.

## AURRERA BEGIRA

Oraindik plan estrategikoaren bi urte falta dira, 2005. eta 2006. urteetako jardura-planak ditu aurrean “Beinke!” taldeak. Izan ere, planifikatutako ekintza batzuk oraindik ez dira egin eta bidean sortuko dira beste hainbat ideia.

Horrez gain, taldearen funtzionamendua hobetzen jarraitzeko asmoa ere badago, merkataritza/ostalaritza eta zerbitzuetan Igorren euskararen erabilera handitzeko badago eta zeregina. Planaren bizitzan bidearen erdian garen honetan, gakoa izango da taldekide berriak lortzea eta daudenak gustura eta orain artean bezala gogotsu jarraitzea.